

2024ko lehen hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 3,5 egin dute gora Euskal AEn

Inportazioek % 4,2%ko hazkuntza izan dute

2024ko lehen hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 3,5 egin dute gora, 2023ko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 1,3koa izan da.

Inportazioen prezioek joera bera izan dute; izan ere, % 4,2 egin dute gora urte artean, baina % 0,3 behera, 2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Esportazio “energetikoen” prezioek % 11,9 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta, eta “ez-energetikoenek”, % 3,0. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ondasun “energetikoen” prezioek % 10,2 egin dute gora, eta “ez-energetikoenek”, % 0,9.

Inportazioen kasuan, produktu “energetikoen” prezioen indizeak % 10,4 egin zuen gora urte arteko tasan, eta “ez-energetikoenak”, % 2,0 egin zuen gora. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio “energetikoenek” % 0,5 egin dute behera, eta “ez-energetikoenek” % 0,4.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2024/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,3	3,5	-0,3	4,2
Energiazko gaiak	10,2	11,9	-0,5	10,4
Energiazkoak ez diren gaiak	0,9	3,0	-0,4	2,0
Kontsumo-ondasunak	2,0	1,5	4,7	9,0
Kapital-ondasunak	1,4	6,9	-2,2	9,7
Bitarteko ondasunak	0,9	3,2	-0,6	3,3

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2024ko Ekainaren 28a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helmuga ekonomikoaren** araberako sailkapenari dagokionez, Kontsumo-ondasunen, Tarteko ondasunen eta Kapital-ondasunen esportazioen prezioek aurreko urtearekin alderatuta izan duten igoera nabarmentzen da (% 1,5, % 3,2 eta % 6,9 hurrenez hurren). 2023ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, egiaztatzen da, era berean, prezioek gora egin dutela hiru sektoreetan: Tarteko ondasunek % 0,9 egin dute gora, Kontsumo-ondasunek % 2,0 eta Kapital-ondasunek % 1,4.

Analisisa inportazioetara bideratuta, ikusten da urte arteko konparazioan hiru ondasun motak hazi egin direla: Bitarteko ondasunak % 3,3, Kontsumo-ondasunak % 9,0 eta Kapital-ondasunak % 9,7. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Kontsumo-ondasunen prezioak bakarrik igo dira (% 4,7).

Esportazioak zer **arlo ekonomikotara** bideratzen diren kontuan hartuta, prezioek, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, gora egin dute eremu guztietan. ELGAn % 0,4 igo dira, EB-28n % 1,4, Eurogunean % 2,3 eta Munduko gainerako herrialdeetan % 6,9. 2023ko lehen hiruhilekoari dagokionez, joera errepikatu egin da: prezioek gora egin dute ia eremu ekonomiko guztietan, eta nabarmentzekoak dira Munduko gainerako herrialdeak (% 18,5), ELGA (% 1,1) eta EB-28 (% 0,5).

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2024/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	1,3	3,5	-0,3	4,2
Euro eremua	2,3	-0,1	0,4	4,4
EB-28	1,4	0,5	-1,5	5,8
ELGE	0,4	1,1	-2,3	6,1
Munduko besteak	6,9	18,5	3,4	-0,4

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2024ko Ekainaren 28a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, ia eremu geografiko guztietan igo dira prezioak aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Munduko gainerako herrialdeetan izan ezik, non % 0,4 jaitsi baitira. Aurreko hiruhilekoaren aldean, tasak negatiboak dira ELGAn (-% 2,3) eta EB-28n (-% 1,5), eta positiboak Munduko gainerako herrialdeetan (% 3,4) eta Eurogunean (% 0,4).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62

[Euskadiko AEko kanpo-merkataritzako balio unitarioaren indizeei \(BUI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskadiko AEko kanpo-merkataritzako balio unitarioaren indizeei \(BUI\) buruzko datu-bankua](#)